



Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena

Espediente-zk.	080-26-1261901
Saila	Justizia eta Giza Eskubideen Saila
Organo eskatzailea	Espetxe-zerbitzuen Zuzendaritza

2026ko ekainaren 10ean Tramitagunen eskaera bat jaso zuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak. Horren bidez, Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Espetxe-zerbitzuen Zuzendaritzak lanpostu-zerrendan proposatutako aldaketa bati buruzko aginduzko txostena eskatzen digu.

Bidalitako dokumentazioan, Espetxe-zerbitzuen Zuzendaritzak proposatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxe Administrazio Orokorreko zigor-betearazpeneko eskalako lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data atzeratzea, hain zuzen ere, 2027ko abenduaren 31tik 2028ko abenduaren 31ra. Hona hemen eskala horretako lanpostuak:

Kodea	Lanpostua	HE	DD (Egungoa)	DD (Eskatutakoa)
520400/*	Administraria	B2B2	2027-12-31	2028-12-31
520410/*	Herrizaingo Zerbitzuko laguntza- agentea	B2B2		
520420/*	Bizikidetzak kontrolatzeko agentea	B2B2		
520430/*	Zerbitzuetako agentea	B2B2		
520440/*	Herrizaingo Zerbitzuko laguntza- kudeatzailea	B2B2		
520450/*	Bizikidetzak kontrolatzeko kudeatzailea	B2B2		
520460/*	Administrazio-zerbitzuen kudeatzailea	B2B2		
520470/*	Zerbitzuen kudeatzailea	B2B2		
520480/*	Langileen kudeatzailea	B2B2		

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 187.8 artikulua eta Euskal Sektorre Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak xedatutakoaren ondorioz, eta sailaren proposamena ikusirik, aginduzko txosten hau ematen da:

- Derrigortasun-datak aldatzeko proposamena**

Derrigortasun-datak ezarri behar dira otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 24., 25. eta 34. artikuluek eta ondorengoek finkatutako irizpideak betez. Espetxe-zerbitzuen Zuzendaritzak igorritako proposamenean azaldu duenez, Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskala espetxe-sistemaren funtsezko zutabea da, eta eskala horretan promozio berriak sartzeak planifikazio berezia eskatzen du, kontuan hartuta baldintza formalak eta prestakuntzako, praktiketako eta lanpostuetan benetan integratzeko benetako denborak.





Oinarri-proposamenaren arabera, hautaketa-prozesua lehiaketa-oposizio sistema baten bidez egituratzen da. Oposizio-faseko probak gainditu eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratu ondoren, lanpostuak esleituko dira eta 4 hilabeteko praktika-fasea hasiko da. Plangintzaren arabera, ziurrenik 2027. urtearen amaieran esleituko dira lanpostuak, eta praktikaldia 2028an egingo da.

Horiek horrela, derrigortasun-datak 2027ko abenduaren 31koak izanez gero, deialdian argitaratutako betekizunak aldatuko lirateke prozesua bukatu aurretik. Izan ere, juridikoki hizkuntza-eskakizuna bete beharrekoa litzateke esleipenak, hasierako jabetza-hartzeak edo praktikaldia gauzatzen ari direnean. Beraz, Espetxe-zerbitzuen Zuzendaritzak proposatzen du derrigortasun-data urtebete atzeratzeko, hautaketa-prozesuaren egiturarekin eta denbora errealekin bat etor dadin, eta hasierako erabakiarekin koherentea izan dadin.

Ondorioz, **zuzendaritza honek ez dio eragozpenik ikusten Espetxe-zerbitzuen Zuzendaritzak egindako proposamenari, hau da, hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data 2028ko abenduaren 31ra atzeratzearekin.** Horrela, hautaketa-prozesua behar bezala eta segurtasunez gauzatzea eta espetxe-zerbitzua behar bezala ematea bermatuko da.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria